



ARRAZTALO

2024ko memoria

2025eko urtarilaren 2a

AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
2	2024 URTEKO EKINTZEN AZALPENA	4
2.1	ZUZENDARITZA ALDAKETA	4
2.2	LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN	4
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.2.2	2024KO IBILBIDEA	5
2.3	ENPLEGU ZENTRO BEREZIA (EZB)	7
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	7
2.3.2	2024RAKO HELBURUAK	7
2.3.3	2024KO IBILBIDEA	7
2.4	BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA	8
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	8
2.4.2	2024KO HELBURUAK	8
2.4.3	2024KO IBILBIDEA	8
2.5	IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK	10
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	10
2.5.2	2024RAKO HELBURUAK	10
2.5.3	2024KO IBILBIDEA	11
2.6	BOLUNTARIOTZAKO BARNE ESTATUTUA	11
3	ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK	11
4	DIRU-KONTUAK	13
4.1	EMAITZA KONTUA	13
4.2	GASTUEN ORDAINAGIRIEN ZERREDA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4.2.1	GIZA BALIABIDEAK (ORDAINDUAK, GIZARTE SEGURANTZA, JOAN-ETORRIAK ETA IRPF)	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4.2.2	USTIAPENEO BESTELAKO GASTUAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

4.2.3 BESTE GASTUAK

¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

4.2.4 INBERTSIOAK

¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2024 urtean egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta lortutako emaitzak deskribatzen dira. Gainera, diru-kontuen azalpena ematen da.

2 2024 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

2.1 Zuzendaritza aldaketa

2024 urteko aldaketa nagusietako bat zuzendaritzan izan da. Urtetan lanean aritu diren pertsonen erreleboa emateko zuzendaritza berria izendatu zen martxoko Batzar Orokorrean. Hurrengo lau urtetarako honakoa izango da zuzendaritza batzordea:

- Lehendakaria: Jon del Olmo Larrañaga.
- Lehendakariordea: Pedro del Olmo Herrera.
- Diruzaina: Gurutzeta Sorondo Otegui.
- Idazkaria: Maria de la Concepción Larrañaga Aduriz.
- Bokala: Iñaki Artola Amiama.

Honekin lotuta, hurrengo urtetako erronka nagusia herritar gehiago elkartera hurbiltzea izango da. 2010ean elkarteak sortu zenetik lehentasuna nekazal ustategia martxan mantentzea izan da. Horren ondorioz, 2018tik ez da sentsibilizazio ekintza aipagarriarik egin eta herrian dugun presentzia azoketara mugatu da. Horri buelta eman nahian, 2025eko erronka izango da sentsibilizazio ekintzak antolatu eta osasun mentalaren gaia herritarrengana hurbiltzea.

2.2 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

2.2.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonen, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2.2.2 2024ko ibilbidea

Lantalde egonkorra

Lantalde egonkorrean gaur egun buruko gaixotasuna duten lau pertsona ari dira lanean. Horietatik hiruk lau urte edo gehiago daramatzate lanean eta beste bat 2024ko azaroan hasi da. Zehazki, langile baten erretiroa kudeatu da eta pertsona berri bat sartu da lanera.

Erretiroa hartu duen pertsonaren kasuan, Arraztalorekin eta nekazaritza jarduerarekin kontaktua ez galtzeko erabakia hartu du. Senideekin koordinatuta, astean hirutan baratzetara joatea adostu dute. Boluntario gisa alta eman zaio eta horrela asteroko dinamika bat zehaztu da. Pertsonak berak, senideek eta arreta ematen dioten profesionalek dinamika hau egokia dela ikusi dute, isolamendua ekidin eta lanean zituen harremanak mantentzeko.

Pertsona honen ordeztasun, beste langile berri bat kontratatatu da. Uztailean lan poltsa ireki eta hautagaiak bilatzeko lana egin zuen elkarteak inguruko erakundeekin. Lan poltsaren bidez jasotako hautagaitzak kontuan hartuta, azaroan Oiartzungo langile berri bat kontratatatu zen. Honekin, lan integrazioko programaren helburua betetzen da, langile berriak desgaitasuna baitu gaixotasun mentalagatik, Oiartzuarra da eta CSMk artatzen du.

Beste bi langileren kasuan, mendekotasuna duten pertsonak dituzte euren kargu. Horrek eragina du beraien egunerokotasunean eta beraien burua zaintzeko zailtasunak dakartza, beste norbaiten arduradun eta zaintzaile ere direlako. Hau ikusita, gizarte zerbitzuekin koordinazioan laguntza mota ezberdinak aztertzeko bidea hasi da, baina ez da erraza pertsonak berak laguntza eskatzen ez badu.

Hau ikusirik, gizarte arreta indartzeko lanean jarraitzeko apustua egiten du elkarteak. Oraingoan bolondresen bidez izango da, baina 2025eko lehen hiruhilekoan arreta hori indartuko duen hezitzaile baten kontratazioa egitea da helburua. 2024ko abenduan lan eskaintza argitaratu da.

Lanbideren Enplegu Plana

2024 urteko lehenengo sei hilabetetan, Lanbideren 2023 urteko Enplegu Planeko langileak izan dira lanean Arraztaloren ustiatuekin. Lantalde finkoarekin batera aritu dira lanean 3 kontratazio berriak.

Pertsona hauen hautaketan, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroak eta herrietako gizarte zerbitzuek parte hartu zuten hautagaiak proposatuz. Aurreko urteekin alderatuz hautagai gehiago egon dira, batez ere Enplegu Plana zerbait egonkorra bihurtu delako eta eragile guztiok dakigulako urte bukaeran egin beharreko zerbait izango dela. Horrela, urte osoan zehar bakoitza bere aldetik pertsona ezberdinen hautagaitzak proposatzen doa, momentua iristen denean hautagai nahikoa edukitzeko. Guztira, hiru pertsona kontratatatu dira, bi gizonezko (25 eta 43 urtekoak) eta emakumezko bat (58 urtekoa).

Langileen kontratazioa 2023ko abenduan gauzatu zen eta 2024ko urtarrilean aurrez baratzean lan egin ez zuten langileekin formazio jarduerak antolatu ziren. Horretarako, Arraztalo Elkarteko baratzatan lanean hasi ziren, dagoeneko martxan zegoen lantalde batean integraturik. Lantaldearen arduradunak, pertsona bakoitzaren profila aztertu eta beharrezko formakuntza eta egokitzapen ekintzak gauzatu zituen, langileen egokitzapena ziurtatzeko. Besteak beste, nekazaritza tresnerian formakuntza, baratza lanen kudeaketan formakuntza eta lan arriskuen prebentzioan formakuntza jaso zituzten. Formazio fase honetan, langile bakoitzaren esperientzia eta gaitasunak aztertu ziren, ustiapenean dauden ataza ezberdinetatik bakoitzari hobekien egokitzen zitzaizkionak aukeratzeko.

2024ko otsailetik 2024ko ekainera, kontratatu berriak Arraztaloko lantaldean integraturik egon dira, nekazaritza lanetan, lanaldi arrunteko fasean. Langile hauen parte hartzearen balorazio oso positiboa egin dute Arraztaloko kideek. Lantaldean integrazio ezin hobea izan dute eta egin beharreko lanen ardura osoa hartu dute. Kasuren batean gainera, ataza ezberdinen lidergoa hartzeko gaitasuna ere erakutsi dute.

Programaren jarraipena Errenteriako Osasun Mentaleko zentroarekin eta udaletako gizarte zerbitzuekin egin da. Hiru bilera egin dira guztira: hautagaien aukeraketako bat, erdibideko jarraipen bat eta itxierako bilera bat. Bertan hautagaien bilakaera zein den aztertu da eta erakunde bakoitzak langileen inguruko ikuspegia eman du, arreta integrala lortu ahal izateko. Gainera, Oarsoaldea Garapen Agentziak elkarriketa ezberdinak egin ditu langileekin behin Enplegu Plana bukatuta beste lan aukerak aztertzeko. Arraztaloren ikuspuntutik hau oso garrantzitsua da, azkeneko urtetan programa bukatu eta berriz ere lan bilaketan hastea kezka eta beldur iturri izan baita parte hartzaileentzat.

Etorkizuneko programei begira, honako hausnarketa egin da:

- 2024an koordinazioa hobetu dela esan daiteke. Bilerak informazioa elkarbanatu eta arreta hobetzeko balio izan dute. Hurrengo urteari begira, bilera egutegia hasieratik jarri eta kontaktua maizago izatea izan beharko luke helburua.
- Programa bukatu baino lehen, hurrengo urratsak zein izango diren aurreikusten joateko dinamika martxan jarri.

Bukatzeko, aipatu behar da Enplegu Planaren bidez kontratatutako pertsonetako bat baratzera etortzen ibili dela programa bukatu arren. Pertsona honek adierazi du bertan gustura dagoela eta hurrengo urratsa zein den erabaki bitartean Arraztalon jarraitu nahiko lukeela. Boluntario gisa alta eman zaio eta behin-behinean ustiategira etortzen da. Urtearen bigarren erdian izan diren bilera ezberdinetan, CSMarekin eta gizarte zerbitzuekin pertsona honen egoera eztabaidatu da eta gertuko laguntza behar duela adierazi da. Behin-behineko egoera hau gehiegi luzatzeko arriskua dagoela ikusten da eta Arraztalorentzat eguneroko

kudeaketa zailtzen du, integrazio programaren helburua enplegua baita, ez bolondres gisa parte hartzea.

2.3 Enplegu Zentro Berezia (EZB)

2.3.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

2.3.2 2024rako helburuak

- Udalean jarduera baimena lortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren eskaera egitea.

2.3.3 2024ko ibilbidea

2024ko urtarrilean Jarduera Baimena lortu zen, ondorioz Enplegu Zentro Bereziaren (EZB) erregistroa egiteko oztopo nagusia gainditu zen. Behin hori lortuta, Enplegu Zentro Bereziaren erregistroa egiteko dokumentazio guztia prestatu zen eta abuztuan eskaera egin zen.

Abuztua bukaeran Eusko Jaurlaritzak Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazioa eman zion Arraztalo Elkartearen nekazal ustiategiari. Ondorioz, lan integrazio programari egiten duen funtzioa aitortu zion. Nahiz eta hasierako helburua EZBan inguruko erakundeek ere parte hartzea zen, lehentasuna eman zaio kalifikazioa lortzeari. Nekazal ustiategiaren iraunkortasuna bermatzeko, EZBak dakartzan onurak ezinbestekoak dira. Ondorioz, erregistroa egitea erabaki zen, gehiago itxaron gabe. Etorkizun batean, inguruko erakundeen parte hartzea sustatzeko lana egin beharko da elkartetik.

Behin erregistroa lortuta, Arraztalo automatikoki Lanbideren dirulaguntza jasotzen hasi da desgaitasuna duten langileen soldatak ordaintzeko. Urtean 22.000 € inguru jasoko ditu soldatak ordaintzeko. Horrez gain, EZBaren kalifikazioa lortu ondoren kontratatzen duen edozein langileren gizarte segurantzaren % 100eko hobaria izango du, langile horrek desgaitasuna baldin badu.

Onura hauek betebeharrak ere badakartza. Besteak beste:

- Hilabetero desgaitasuna duten langileen soldaten gastuen justifikazioa bidali behar da Lanbidera.
- Urtean behin, desgaitasuna duten langileek egindako ibilbidearen eta EZBaren memoria entregatu behar da.

- Etorkizunera begira, gizarte arreta emango duen hezitzaile baten kontratazioa egin beharko da.

Guzti honekin, 2025a trantsizio urtea izango da. EZBak dakartzan betebeharrak ikasten joan eta jasotzen diren dirulaguntza berrien balorazioa egin beharko da. Behin mekanismo hauen funtzionamendua ikasita, integrazio programaren jasangarritasuna berriz aztertu eta hurrengo pausoak zein diren pentsatu beharko da.

2.4 Baratzak eta kontsumo taldea

2.4.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoian-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konprometua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2.4.2 2024ko helburuak

2024rako honako helburuak zehaztu dira:

- Kontsumo taldea sendotzen jarraitzea. Komunikazio kanpainak egiten jarraitu, kide berriak erakartzeko.
- Labore denda eta Ikastolako sukaldea hornitzeko barazkien ekoizpena ugaritzea.
- Inguruko denda txikiak hornitzen jarraitzea. Orain arte modu puntualean egiten da. Aurrera begira denda txikiak iraunkortasunez hornitzea izango litzateke helburua.
- Bezero berriak lortzea.

2.4.3 2024ko ibilbidea

Baratzak

2024an Arraztalok lau baratza (19000 m²) eta bi sagasti (12000 m²) kudeatzen jarraitzen du. Azpiegiturei dagokionean aldaketa gutxi daude. 2023 baratza eta sagastiekin jarraitzen dugu lanean.

Kontsumo taldea

2024 urteari dagokionean, lehen sei hilekoan partaideak jaitsi egin ziren, 30etik 25era. Bigarren sei hilekoan partaide kopurua mantendu egin zen, eta abenduan 25eko zen.

Urtean zehar kanpaina ezberdinak egin dira kideak erakartzeko:

- Etxez etxe eta enpresetan esku-orrien banaketa.



- Email bidezko kanpainak.
- Ikastetxeen bidezko kanpainak.
- Iragarkiak prentsan.

Orokorrean ikusten da inguruko Kontsumo Taldeek beheranzko joera dutela. Orain dela hamarkada bat egon zen moda pasa da, eta asko desagertzen ari dira. Arraztaloren kasuan Oiartzunen ahalegina egiten den arren, zaila da kide berriak erakartzea. Ideia ezberdinak proposatu dira taldea biziberritzeko. Bi lan ildo nagusi daude:

- Bazkideen partaidetza sustatzeko ekintzak. Irailean boletin bat banatzen hasi ginen, elkartearen inguruko albisteak partekatzeko. Honekin bazkideei talde baten parte direla adierazi nahi zaie, saskia jasotzea baino gehiago dela alegia. Ildo honekin lotuta, jarduera ezberdinak antolatzeko ideia era badago, besteak beste sukaldaritza ikastaroak edo auzolanak.
- Produktu berrien eskaintza. Aurten saiakera egin da produktuen barietatea handitzeko eta barazkien ekoizpenean hutsuneak daudenean beste produktuak banatzeko. Besteak beste Errezil sagarrak erosi eta banatu dira saskietan.
- Formatu eta ordutegi berriak. Batzuetan kontsumo taldean parte hartzeko oztopo nagusia ordutegia izaten da. Entrega egunak eta orduak moldatzeko neurriak hartu dira zenbait partaiderekin.

Horrez gain, inguruko herrietan kontsumo taldeak sortzeko ahalegina egin da. Irungo Bentas auzoan aurkezpen bat egiteko proposamena landu zen bertako auzo elkartarekin, baina ez

zen egitea lortu. Astigarragan ere galdetu da ea kontsumo taldea sortzeko interesik badagoen, baina ez da erantzun argirik lortu.

2025eko helburua izango da lanketa hauekin jarraitzea kontsumo taldea indartzeko.

Beste bezeroak

Merkataritza txikiari dagokionean, bezero nagusiak mantentzen dira: Haurtzaro Ikastolako jantokia eta Labore. Orokorrean salmentak 2023koak baino hobeak izan dira. Urtearen azken zatian ahalegin berezia egin da bezero hauen salmentak mantentzeko, udako uzta baliatuz. Horrez gain, bi bezero berri lortu dira. Denda bat Hondarribian eta beste bat Errenterian. Honi esker, kontsumo taldean izan den bazkide jaitzierari aurre egin zaio eta diru-sarrerak mantentzea lortu da.

HemenGuk ekimenaren baitan antolatu diren azokatan parte hartzen jarraitzen dugu eta gure produktuak zein kontsumo taldea bistaratzeko aukera izaten ari da.

Eroskiren online dendaren ([‘Eroski Azoka’](#)) egitasmoa bertan behera geratu da. Web plataforma martxan jarri zuten baina dirudienez bertako salmentak ez ziren nahikoak izan 2023an zehar. Ondorioz, webgunea ixtea erabaki zuten.

Azkenik, Errenteriako baserritarren azokan postua jartzen jarraitzen dugu asteazkenetan. Bertako salmentak oso aldakorak direla ikusten da, batez ere jartzen diren beste postuen baitakoa izaten delako. Asteazkenetan jartzen dugu postua eta beste inor ez badago, salmenta onak izaten dira. Beste postuak baldin badaude ordea, hauen barietatea handiagoa denez, salmentak jaitsi egiten dira. Hala ere, urtean zehar bezero berriak lortu dira eta lan horrekin jarraitzea aurreikusten da. Elkarrearen lana eskualdean bistaratu eta langileek beste aktibitate bat eduki dezaten jarduera egokia da azokarena.

2.5 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

2.5.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkarrearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2.5.2 2024rako helburuak

2024rako helburuak honakoak dira:

- Haurtzaro Ikastolak martxan jarri nahi duen proiektuan laguntzea.

- Elizaldeko eta Haurtzaroko ikasleak baratzetara joaten direnerako, irakasleekin bisitak landu Arraztalo elkarteak burutzen duen lana azalduz. Horretarako irakasleei Arraztaloko langileek egiten duten lana azaldu behar zaie. Langilearen egunerokotasuna, langilearen prozesua, dituzten zailtasunak, izaten dituzten aurrerapenak eta abar.

2.5.3 2024ko ibilbidea

2024an, Arraztaloren baratzatan Haurtzaro Ikastolako HHko ikasleen bisita izan da. Beste urtetan Udalekuetako bisita ere izan den arren, aurten ez da horrelakorik antolatu.

2.6 Boluntariotzako Barne Estatutua

Erakunde publiko zein pribatuetatik laguntzak lortzerako orduan, boluntarioen parte hartzea sustatu eta formalizatzeko gero eta mekanismo gehiago eskatzen ari dira. Legeak ezartzen duenaren arabera, boluntarioak dituzten erakundeek Boluntariotzako Barne Estatutu bat onartu behar dute. Bertan, pertsona horiek izango dituzten betebeharrak eta eskubideak zehaztu behar dira. Gainera, bolondres bakoitzarekin akordio bat sinatu behar da, egingo duen lanaren baldintzak zehazteko.

Eskakizun berri hauek ikusita, Arraztalo Elkarteak Boluntariotzako Barne Estatutua prestatu da eta epe laburrean onartuko da. Gainera gaur egun elkarteak parte hartzen duten boluntarioekin banakako akordioa sinatu da, baita boluntarioen barne erregistroa sortu ere. Azkenik, legeak boluntarioentzat ardura zibileko eta osasun arretako aseguruia kontratatzea eskatzen du. Hori ere kontratatu da, legeak eskatzen dituen baldintzak betetzeko.

2024 bukaeran, Arraztaloren baitan 6 pertsona daude boluntario gisa erregistratuta. Horietatik 3 zuzendaritzan lanetan aritzen dira eta beste 3 baratzetan edo azokatan laguntzen.

3 ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurten eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Dirulaguntza	Eskatua	Onartua	Helburua	Egoera
Oiartzungo Udala	53.000,00 €	53.000,00 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Onartuta. Hitzarmen bidezko dirulaguntza. % 100a kobratuta
Oiartzungo Udala	2.000,00 €	2.000,00 €	Lehen sektoreko proiektuak laguntzeko dirulaguntzak 2024	Onartuta. %100 kobratuta.

Gipuzkoako Aldundia	Foru	10.000,00 €	6.630,43 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Onartuta. Kobratu gabe
Kutxa Fundazioa		20.000,00 €	20.000,00 €	Lan integrazio programan laguntzeko 2024ko laguntzak	Onartuta, % 75a kobratuta
Lanbide		19.851,26 €	19.851,26 €	Enplegu Plana 2024	Onartuta, kobratu gabe.
Lanbide		7.805,70 €	7.805,70 €	Desgaitasuna duten langileen soldatak ordaintzeko dirulaguntzak	Onartuta, %95kobratuta.
Gipuzkoako Aldundia	Foru	2.409,28 €	2.409,28 €	Gipuzkoako Lurralde Historikoan ingurumen konpromisoetarako, konpromiso klimatikoetarako eta beste kudeaketa konpromiso batzuetarako dirulaguntzak	Onartua, kobratu gabe.
Caixa Oiartzun bulegoa		2.000,00 €	0 €	Makinaria erosteko	Onartu gabe.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



4 DIRU-KONTUAK

4.1 Emaiza kontua

2024 SARRERAK	
Salmentak	
Kontsumo Taldea	16.872,00 €
Merkataritza	7.592,78 €
Dirulaguntzak	
Udala	56.563,38 €
Foru Aldundia	3.049,37 €
Eusko Jauriaritza	27.266,68 €
Bankuak	20.000,00 €
Maileguak	
Maileguak	7.000,00 €
Beste	
Beste	69,85 €
Guztira	138.414,06 €

2024 GASTUAK	
Giza Baliabideak	
Ordainduak (Soldatak + IRPF)	93.625,18 €
Gizarte Segurantzak	35.368,68 €
Joan-etorriak	198,48 €
Ustiapeneko bestelako gastuak	
Aseguruak	2.148,55 €
Zerbitzu profesionalak	2.513,78 €
Baratza materialak	2.144,08 €
Landare eta haziak	2.382,44 €
Argindarra	70,33 €
Ura	224,32 €
Hondakinak	209,18 €
Banketxeen zerbitzuak eta antzekoak	57,77 €
Beste	
Beste gastuak	608,91 €
Inbertsioak	
	7.214,97 €
Guztira	146.766,67 €

BALANTZEA	
2024-01-01	16.664,47 €
Balantzea	-8.352,61 €
2024-12-31	8.311,86 €

Bezeroen zorrak	1.068,17 €
Hornitzaileekin zorrak	0,00 €